

ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA

GALDERAK

- 1.- **Zein da lehen mailako arretaren lurralde-eremua?**
 - a) Osasun-arloa.
 - b) Oinarrizko osasun-eremua.
 - c) Osasun-zentroa.
 - d) Erantzun guztiak okerrak dira.

- 2.- **Zer izen du osasun-zerbitzuen arteko eta haien eta administrazioaren arteko koordinazio, lankidetzeta eta informaziorako organo iraunkorrak?**
 - a) Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseilua.
 - b) Arloko Zuzendaritza Kontseilua.
 - c) Osasun Sistema Nazionaleko Eskualde Batzordea.
 - d) Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Batzordea.

- 3.- **Zer eskatzen da kontsultarteko orrian?**
 - a) Beste espezialista baten iritzia.
 - b) Behar diren erradiodiagnostiko-probak.
 - c) Lehen Mailako Arretako medikuaren iritzia.
 - d) Pazientearen baimena.

- 4.- **Zein da espainiako sistema sanitarioko oinarrizko egitura?**
 - a) Osasun-arloa.
 - b) Osasun-zentroa.
 - c) Ospitalea.
 - d) Oinarrizko osasun-eremua.

- 5.- **Osasun komunitarioak funtsezko ezaugarri bat du, osasun publikotik bereizten duena. Zein da ezaugarri hori?**
 - a) Ikuspegi prebentziozkoagoa du.
 - b) Autoritateen mende dago guztiz.
 - c) Komunitatean aktiboki parte hartzen du.
 - d) Erantzun guztiak okerrak dira.

- 6.- **Batez ere, zer lantzen du osasun komunitarioak?**
 - a) Komunitateko behar sanitarioak baloratzen ditu.
 - b) Osasunaren sustapenean.
 - c) Osasun publikoa zaintzen du.
 - d) Osasun publikoaren inguruko politikak garatzen ditu.



- 7.- **Definizio hauetatik zein dagokio erizaintzako arreta-prozesuari?**
- a) Erizaintzako eredu teorikoak praktika errealean aplikatzen diren metodoa da.
 - b) Erizaintzako zainketen emaitza da.
 - c) Pazienteak erabiltzen dituen metodoak dira.
 - d) Lortutako helburuen eta egindako jardueren sekuentzia da.
- 8.- **Ondorengo zein EZ da ospitaleko historia klinikoaren ezaugarri bat?**
- a) Datuak noizean behin jasotzen dira.
 - b) Sendaketa prozesura dago bideratuta.
 - c) Medikua eta pazientearen arteko erlazioa noizbehinkakoa da.
 - d) Inguru sozialak garrantzia handia du.
- 9.- **Ondorengo esaldietatik zein da GEZURRA bizi-itxaropenaren inguruan?**
- a) Neuketa hipotetiko bat da, ez baititu biziraute probabilitate errealak neurtzen.
 - b) Bere kalkulua heriotza egungo heriotza-tasetan dago oinarrituta.
 - c) Ezin da eskualde edo herrialde ezberdinak konparatzeko erabili.
 - d) Denak dira egiak.
- 10.- **Nola deritzo hezetasunarekiko sentikorra den materialari?**
- a) Hidrosentikor.
 - b) Higroskopiko.
 - c) Esteril.
 - d) Termolabil.
- 11.- **Lan hauetatik zein EZ dago biltegiko lanen artean?**
- a) Artikuluak ikuskatzea aldian behin.
 - b) Behar den merkantzia eskatzea.
 - c) Produktu garestiak erretiratzea.
 - d) Material guztien sarrerak eta irteerak erregistratzea.
- 12.- **Zer izen du enpresa batean mugimenduak dituzten produktuen multzoak?**
- a) Gordailu aktibo.
 - b) Segurtasun-gordailu.
 - c) Gordailu maximo.
 - d) Eskabide-puntu.



13.- Zein urtetan sortzen da Erizaintzako Zainketa Osagarrietako Teknikariaren irudia?

- a) 1975.
- b) 1984.
- c) 1986.
- d) 1995.

14.- Zer motatakoa da klinikoa ez den dokumentazioa?

- a) Ez-sanitarioa.
- b) Sanitarioa.
- c) Klinikoa.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

15.- Zein ez da EZOTaren funtzioetako bat?

- a) Medikua esku-hartze kirurgikoetan laguntzea.
- b) Intrumentala jaso eta garbitzea.
- c) Pixontziak jarri, kendu eta beren garbiketa.
- d) Beira-arasak, matoriala eta instrumentalaren garbiketa.

16.- Zein urtetan ezarri ziren espainian klinikako laguntzaile tituluaren ikasketak adar sanitarioko lanbide heziketan?

- a) 1986.
- b) 1970.
- c) 1975.
- d) 1947.

17.- Dokumentazio motez ari bagara, ondorengoetako zein da dokumentazio ez klinikoa?

- a) Dietak eskatzeko formulario bat.
- b) Odol-analitika bat.
- c) Historia klinikoa.
- d) Gela-zenbakia.

18.- Zer materialek behar ditu biltegiratze baldintza bereziak higroskopikoa izateagatik?

- a) Txertoek.
- b) Ur destilatuak.
- c) Konprimatu eferbeszenteek.
- d) Beirazko anpoiletan ontziraturako injektagarriek.

19.- EZOT-a:

- a) Langile ez fakultatiboa da.
- b) Langile fakultatiboa da.
- c) Teknikari fakultatiboa da.
- d) Goi-mailako langilea da.

20.- Zein denbora-tartetan gorde beharko da dokumentazio klinikoa?

- a) 10 urtez, asistentzia-prozesuan alta eman denetik.
- b) 5 urtez, asistentzia-prozesuan alta eman denetik.
- c) 2 urtez, asistentzia-prozesuan alta eman denetik.
- d) 12 hilabetez, asistentzia-prozesuan alta eman denetik.

21.- Ondorengoetako zein da dira Erizaintzako Zaintza Osagarrietako Teknikariaren zeregina kirofano edo esterilizazio unitatean?

- a) Toalla, mantalen eta beste material batzuen zaintza, mantentzea eta birjarpena.
- b) Eskularruak konpontzea eta gasa aposituak prestatzea.
- c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- d) Erantzunetako bat ere ez da zuzena.

22.- Morbilitate-adierazleak. Zer da prebalentzia?

- a) Gaixotasun batek eragindako pertsonen proportzioa, populazio jakin batean eta denbora jakin batean.
- b) Populazio jakin batean gaixotasun zehatz bat garatzen duten pertsonen proportzioa, aldez aurretik osasuntsu zeudenak.
- c) Bizi-itxaropen osasungarriaren adierazle bat, populazio jakin bati egokitua.
- d) Populazio osasuntsu batek gaixotasuna garatzen duen denbora, normalean urtebete.

23.- Nork proposatu zuen erizaintzako eredu gehigarri eta osagarria?

- a) F. Nightingalek.
- b) V. Hendersonek.
- c) I. Rogersek.
- d) D. Oremek.

24.- Ospitaleez kanpoko dokumentuak. Zer da NABGen parte?

- a) Amatasunagatikoko aldi baterako ezintasunaren parte medikoa.
- b) Nahitaez aitortu beharreko gaixotasunen osasun-komunikazioa.
- c) Osasun Sistema Nazionalaren erabiltzaileak identifikatzen dituen administrazio-dokumentua.



d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

25.- Osasun-biltegien, Paretoen printzipioa aplikatzeari dagokionez, B motako produktuak:

- a) Kostu handiko produktuak dira.
- b) Kostu ertaineko produktuak dira.
- c) Kostu txikiko produktuak dira.
- d) Kantitate handian behar diren produktuak dira.

26.- Biltegiratzeko baldintzen inguruan, hauetako zein jotzen da material termosentikortzat?

- a) Sendagai eferbeszenteak.
- b) Txertoak.
- c) Ur distilatua.
- d) Kotoi hidrófiloa.

27.- Osasun komunitarioan:

- a) Gobernuak abiarazten dute zonaldeko osasun-beharren balorazioa.
- b) Erabiltzaileek modu aktiboan hartzen dute parte osasun-programetan.
- c) Ekintzak osasun-agintariek ezartzen dituzte, eta norbanakoek modu pasiboan jasotzen dituzte.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

28.- Zer metodo erabiltzen da biltegi izakinak balioztatzeko?

- a) FIFO.
- b) LIFO.
- c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

29.- Erizaintzako zer ereduren arabera da gizakia ingurunearekin etengabeko elkarreaginean dagoen izaki biopsikosozial bat?

- a) Rogersen eredia.
- b) Callista Royren eredia.
- c) Penderren eredia.
- d) Denak dira okerrak.

30.- Ondorengo kasuetako zeinetan erabiliko ditugu eskularru esterilak?

- a) Fistula arteriobenosoaren kateterizazio edo maneia.
- b) Analisirako lagienak jasotzea.
- c) Kolostomia poltsak aldatzea.
- d) Orofaringea aspiratzea.



- 31.- Ondorengo kasuetatik, zeinetan EZ da eskularrurik erabili behar?**
- a) Arropa zuri zikinaren maneua.
 - b) Agente zitostatikoan manipulatzea.
 - c) Fluidoterapiaren maneua.
 - d) Ospitaleko kontaktuzko aislamendua.
- 32.- Zer egin behar da sexu-eraso edo -abusuarengatik izandako lesioen parte bate ondoren?**
- a) Familiari irakurriko zaio partea.
 - b) Lehenbailehen bidaliko da guardiako epaitegira.
 - c) Lesioen kopia emango zaio Ertzaintzari.
 - d) Biktimari ez zaio aholkurik emango gizarte- eta babes-neurriei buruz.
- 33.- Genero indarkeriaren eta sexu erasoaren aurrean EAE-ko osasuneko profesionalak nola jardun jakiteko gidaren arabera, prebentzio tertziarioaz ari garela, zein da FALTSUA?**
- a) Kasu baten hasierako oinarrizko erantzuna kasu bat detektatzen duen edozein profesionalentzat diseinatuta dago.
 - b) Hasierako oinarrizko jarduketak ordena honetan egin behar dira: entzun; harrera egin eta enpatia izan; arriskuen balorazioa egin; jarraitutasuna eta bideratzea bermatu; erregistratu; jakinarazpen judiziala egin.
 - c) Jakinarazpen judiziala asistentziaren ardura duen profesionalak egingo du, soilik emakumeak eskatu edo baimendu badu, dagoen arrisku-maila edozein dela ere.
 - d) Kasua detektatu ondoren, modu egituratu eta homogeenan jardungo da.
- 34.- Hauetatik zein da kantiar etikaren (Immanuel Kant) ezaugarria?**
- a) Kontuan hartzen du etika unibertuala, gizaki arrazional guztientzat baliagarria, eta ez zirkunstanzietatik eta helburu aldakorrek baldintzatua: sorburua arrazoimenean dago.
 - b) Printzipio, betebeharrak edo justiziaren ikuskeraren batekin bat datozen ekintzak jotzen ditu etikotzat: horren arabera dira ekintzak egokiak edo desegokiak.
 - c) Ondorioek bakarrik, beste ezerk ez, esango dute ekintza bat ona edo txarra den.
 - d) Gauza guztiek ontasunerako joera dute; ontasuna da giza izaeraren betetasuna eta perfekzioa.
- 35.- Zer da baimen informatua?**
- a) Eskakizun etiko bat eta herrialde garatu guztietako legeek onartzen duten eskubide bat.
 - b) Interbentzio mediko bat egiteko, paziente batek modu askean, boluntarioan eta kontzientean emandako oniritzia, arriskuen, onuren eta ordezkari aukeren inguruan informazioa jaso ondoren.
 - c) Giza eskubide indibidual bat, bizitzeko, aske izateko eta osasunerako eskubideekin batera.



d) Aukera guztiak zuzenak dira.

36.- Printzipio edo irizpide hauetatik zein aplikatu behar da osasun-justizia lortzeko?

- a) Egoera onenean daudenei lehentasuna ematea.
- b) Gutxiegitasuna.
- c) Erabateko ongizatea maximizatzea.
- d) Desparekotasuna.

37.- 32.- Abortuari buruzko egungo eztabaidari dagokionez, esaldi hauetatik, zein EZ da haurdunaldia etetea alegatzeko arrazoietako bat?

- a) Bidegabekeria larriak zuzentzea, hala nola bortxaketa bat.
- b) Emakumeak bere ugaltzeko gaitasuna erregulatzeko duen eskubidea aitortzea.
- c) Arazo ekonomikoak, soziologikoak edo demografikoak arintzea.
- d) Baldintza higieniko txarretan edo berme osoz egiten ez dakiten pertsonen gauzatutako abortu klandestinoak sustatzea.

38.- Hauetako zeini dagokio ongintza-printzipioa?

- a) Nurenbergeko kodeari.
- b) Helsinkiko adierazpenari.
- c) Belmont txostenari.
- d) Aurreko erantzun guztiei.

39.- Garuneko heriotza duten emileen organoak eskuratzea:

- a) Dohaintza ukatzeko arrazoiaren artean antolakuntzakoak daude.
- b) Ustezko adostasuna: ezinbestekoa da dohaintza-emaileak nahia adierazi izana idatziz edo ahoz bizirik dagoela.
- c) Emaileren anonimotasuna gordeko da; ez, ordea, hartzailearena.
- d) Adostasun esplizitua: dohaintza-emailetzat joko da alde aurretik ezezkoa adierazi ez duen subjektu oro.

40.- Oro har, abortuaren lege despenalizatzaileak:

- a) Epeenak eta/edo kasuenak dira.
- b) Balioenak eta/edo sinbolikoak dira.
- c) Absolutuak eta/edo arrazoituak dira.
- d) a) eta b) zuzenak dira.

41.- Pazienteak mobilizatzeari dagokionez, zein da oinetarako gomendatzen den posizioa, eusteko oinarri seguru eta egonkorra bermatzeko?

- a) Oinak elkarrekin eta paraleloak, indarra erdiko ardatzean kontzentratzeko.



- b) Oinak bananduta, bata bestea baino aurreratuago jarrita mugimenduaren norabidean.
- c) Oinak 90 graduko angeluan, enborra errazago biratzeko.
- d) Puntetan oinarrituta, azkar mugitu ahal izateko.
- 42.- Mukosak ziprizzintzeagatik istripu biologikoa izanez gero, zein da garbiketa-protokoloa?**
- a) Eremua urarekin eta xaboi neutroarekin garbitu 2-3 minutuz.
- b) Odol-jarioa eragin eta ur korrontearekin garbitu, igurtzi gabe.
- c) Urarekin bakarrik garbitu, beste substantziarik gehitu gabe.
- d) Antiseptiko alkoholiko bat aplikatzea kontaktua izan eta berehala.
- 43.- Lentzeria ohetik kentzerakoan, zer arreta kritiko hartu behar du EZOT-ak arropa garbitegira bidali aurretik istripu biologikoak saihesteko?**
- a) Arropa ehun moten arabera bereiztea, errazago garbitzeko.
- b) Arropen artean objektu zorrotzik ez dagoela egiaztatzea.
- c) Arropa desinfektatzaile lurrunkorrekin lainoztatzea, poltsikoratu aurretik.
- d) Erabilitako orratzak lentzeria-poltsetan sartzea, babestuta badaude.
- 44.- Zer epe gomendatzen da istripu biologiko baten berri emateko arloko arduradunari edo Prebentzio Zerbitzuari?**
- a) Lanaldia amaitu baino lehenago.
- b) Istripuaren ondorengo lehen 24-48 orduetan.
- c) Istripuaren ondorengo 5 egun naturalen barruan.
- d) Objektu zorrotza nabarmen kutsatuta bazegoen bakarrik jakinarazi behar da.
- 45.- Produktu kimiko baten etiketako nahitaezko informazioa nahikoa EZ bada langilearentzat, zein dokumentu kontsultatu behar du informazio-iturri aurreratu gisa?**
- a) Ontziaren fabrikatzailearen jarraibideen eskuliburua.
- b) POUren istripu biologikoen erregistroa.
- c) Produktuaren segurtasun-datuaren fitxa.
- d) Ospitaleko farmaziaren katalogo orokorra.
- 46.- Lan hauetatik zein ez dago EZOT-aren egin beharrekoen artean?**
- a) Solairuko arropa zuria ezartzea eta ordenatzea.
- b) Tratamenduak aplikatzea bide parenteraletik.
- c) Pazienteen oheak egitea.
- d) Paziente batzuk garbitzea.



- 47.- Zein autorerena da haurtzaroko estadio-sail honen deskribapena: oldarkor puru, emozional, sentsomotor?**
- a) Sigmund Freud.
 - b) Albert Bandura.
 - c) Jean Piaget.
 - d) Henry Wallon.
- 48.- Nortasunaren zein teoriak azpimarratzen dituzte inkontzientearen funtzionamendua, motibazio inkontzientea eta senezko bizitzaren, errealtatearen eta gizarteak ezartzen dituen mugen arteko talka?**
- a) Teoria psikoanalitikoek.
 - b) Teoria humanistikoek.
 - c) Ikaskuntzaren teoriak.
 - d) Nortasun-ezaugarrien teoriak.
- 49.- Nortasunaren zein babes-mekanismo erabiltzen dugu gure kontzientziatik gauza desatseginak edo mingarriak baztertzen ditugunean?**
- a) Proiekzioa.
 - b) Errepresioa.
 - c) Identifikazioa.
 - d) Erreakziorako eraketa.
- 50.- Pertsona batek bere benetako sentimenduak eta usteak adierazten EZ dituenean, eta beti besteen iritzia onartzen dituenean, zer motatako harreman-komunikazio da hori?**
- a) Sumisioa.
 - b) Erasokorra.
 - c) Asertiboa.
 - d) Zuzena.
- 51.- Zer da disemia?**
- a) Hitzik gabeko komunikaziorako erraztasuna.
 - b) Elkarrekin jarduten (interaktuatzen) ari diren bi pertsonaren arteko distantzia.
 - c) Egoera bakoitzean hizkera egokia erabiltzeko erraztasuna.
 - d) Pazientearen seinale emozionalak interpretatzeko zailtasuna.
- 52.- Nola esaten zaie pertsona batek modu jakin batean jokatzeko dituen alde zuzenak?**
- a) Gaitasun.
 - b) Jarrera.
 - c) Adeitasun.
 - d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.



- 53.- Farmakoak ahotik emateko zereginean, EZOT-ak zer funtzio mota du?**
- a) Teknikoa.
 - b) Harremanezkoa.
 - c) Teknikoa eta harremanezkoa.
 - d) Erantzun bat ere ez da zuzena.
- 54.- Hauetatik zein jotzen da gaixotasuna bizitzeko moduan eragina duen barneko faktoretzat?**
- a) Pazientearen familia.
 - b) Gaixotasun mota.
 - c) Gaixotasunaren inguruan aurretik izan diren esperientziak.
 - d) Giro soziokulturala.
- 55.- Zer defentsa-mekanismo da gaixoak logikara jotzen duenean bere egoera onartzen saiatzeko?**
- a) Ukoa.
 - b) Errepresioa.
 - c) Arrazionalizazioa.
 - d) Erregresioa.
- 56.- Zer izen dute autoagresio-pentsamenduek?**
- a) Autolisi.
 - b) Heterolisi.
 - c) Hemolisi.
 - d) Homolisi.
- 57.- Zer prozesu da ahalbidetzen duena norbanakoak eta komunitatea beren osasunean eragina duten elementuetan kontrol handiagoa izatea?**
- a) Osasungintzaren sustapena.
 - b) Osasunaren sustapena.
 - c) Bizitzeko erak.
 - d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 58.- Osasun-heziketarako jarduerak programatzeko, lehenengo:**
- a) Egoera zein den aztertu behar da.
 - b) Helburuak zehaztu behar dira.
 - c) Lehentasunak zehaztu behar dira.
 - d) Jarduera ebaluatu behar da.



- 59.- Zein dira nahasmendu emozionalak pentsaera eta atribuzio okerrekin edo irrazionalekin lotuta daudela dioten terapiak?**
- a) Terapia sistemikoak.
 - b) Terapia konduktistak.
 - c) Terapia kognitiboak.
 - d) Terapia psikodinamikoak.
- 60.- Amnesia anterogradeaz ari garela, zein da ZUZENA?**
- a) Pazientea ez da gai eduki berriak finkatzeko.
 - b) Ebokaziozko amnesia ere esaten zaio.
 - c) Pazientea ez da iraganeko gertaerak edo edukiak gogoratzeko gai.
 - d) Guztiak dira zuzenak.
- 61.- Piaget-en arabera, zenbat aldi bereizten ditu nerabezarora arteko pentsamenduaren eta mekanismo intelektualaren eraketaren teoriak?**
- a) Hiru aldi.
 - b) Bi aldi.
 - c) Aldi bakarra.
 - d) Lau aldi.
- 62.- Gaixotasunaren bizipenaren barruan, zein EZ da barne-faktore bat?**
- a) Aurretiazko esperientziak.
 - b) Gaixotasun mota.
 - c) Ezaugarri fisikoak.
 - d) Pazientearen baliabide ekonomikoak.
- 63.- Zer da konbertsio-nahasmendua?**
- a) Dismorfofobiari lotutako antsietate-nahasmendu mota bat da.
 - b) Pazientearen simulazioak ezaugarritzen duen nahasmendu bat da.
 - c) Nahasmendu somatomorfo bat da, lesio organikorik gabea.
 - d) Nahasmendu horren ezaugarri dira gaixoak ekidin nahi dituen objektu edo egoera zehatz batzuekiko ideiak, pentsamendu errepikakorrak eta beldurra.
- 64.- Zein EZ da gaixotasun kronikoaren ezaugarri bat?**
- a) Hasiera: bat-batekoa eta maltzurra.
 - b) Iraupena: konstantea.
 - c) Pronostikoa: txarra.
 - d) Tratamendua: eraginkorra.



- 65.- Zein EZ da Alzheimer motako demenzia duen pazientearen ezaugarria?**
- a) Agnosia.
 - b) Anorexia.
 - c) Afasia.
 - d) Apraxia.
- 66.- Nahasmendu mentaletan, zer motatako nahasmenduren sintomak dira errealitatearekiko lotura galtzea, haluzinazioak, eldarnioak, ideien ihesa, eta pentsamenduaren eta psikomotrizitatearen asaldurak?**
- a) Psiketokoa.
 - b) Neurotikoa.
 - c) Oligofrenikoa.
 - d) Nortasunaren nahasmendua.
- 67.- Nork proposatu zuen nortasunaren barruan hiru faktore (Zera, Nia eta Supernia) bereizten dituen teoria psikoanalitikoak?**
- a) S. Freud.
 - b) A. Adler.
 - c) G. W. Allport.
 - d) B. F. Skinner.
- 68.- Elisabeth Kübler-Ross-en arabera, hauetatik zein EZ da heriotzaren onarpenaren etapa bat?**
- a) Ukoa.
 - b) Negoziazioa.
 - c) Onarpena.
 - d) Itzulera.
- 69.- Haurrak ospitaleratuta egotean igarotzen dituen faseen artean protesta-fasea dago. Aukeratu enuntziatu ZUZENA:**
- a) Protesta-fasean gurasoak agertzen badira, haiekiko mendekotasun-jarrerak gehitzen dira haurrarengan.
 - b) Ezaugarrietako bat gurasoekiko aldentze-jarrerak dira.
 - c) Ingurune berriarekiko interes handiagoa du.
 - d) Besteen laguntza onartzen hasten da.
- 70.- Zein EZ da gaixotasun kronikoaren ezaugarri bat?**
- a) Iraupen etengabea.
 - b) Pronostiko txarra.
 - c) Hasiera aldakorra, bat-batekoa eta/edo maltzurra.



d) Krisiaren bizipen goratua eta laburra.

71.- Zer esan nahi du errefortzu positiboak erizaintzako zaintza osagarrietako teknikarien zainketetan?

- a) Subjektuaren jokabide bat beretzat atsegina den zerbaitekin bat etorraraztea, jokabide hori errepikatzeko joera izan dezan.
- b) Subjektuaren jokabide bat beretzat atsegina den zerbaitekin bat etorraraztea, jokabide hori errepikatzeko joera izan ez dezan.
- c) Subjektuaren jokabide bat beretzat desatsegina den zerbaitekin bat etorraraztea, jokabide hori errepikatzeko joera izan ez dezan.
- d) Subjektuaren jokabide bat beretzat desatsegina den zerbaitekin bat etorraraztea, jokabide hori errepikatzeko joera izan dezan.

72.- Gaixotasun-egoeran, paziente batek EZ badu onartzen beretzat mingarria edo gatazkatsua dena, zer prozesu da?

- a) Sublimazioa.
- b) Ukapena.
- c) Erregresioa.
- d) Arrazionalizazioa.

73.- Zein dira psikosiaren sintomarik ohikoenak?

- a) Haluzinazioak.
- b) Eldarnioak.
- c) a) eta b) zuzenak dira.
- d) Aurreko erantzunenetako bakar bat ere ez da zuzena.

74.- Zer da pertsona baten borondatearen kontra, bere buruan behin eta berriz agertzen den ideia finko eta errepikakorra?

- a) Obsesioa.
- b) Fobia.
- c) Konpulsioa.
- d) Larritasun-krisia.

75.- Sintoma hauetako zein EZ da agertzen antsietate orokorreko nahasmenduan?

- a) Kontzentratzeko zailtasunak.
- b) Loaren nahasmenduak.
- c) Nahasmen-egoerak.
- d) Gehiegizko kezka.



- 76.- Zein dira erizaintzako zaintza osagarrietako teknikariaren osasun-hezkuntzako zereginak?**
- a) Irakastea ohitura osasungarriak eta pazientearen oinarrizko autozaintza-teknikak.
 - b) Pazienteari laguntzea gaixotasuna onartzen eta ahal den neurrian babestea.
 - c) a) eta b) zuzenak dira.
 - d) Aurreko erantzunenetako bakar bat ere ez da zuzena.
- 77.- Zer da nortasunaren garapenari buruzko teoria psikologiko kognitiboen ardatza?**
- a) Pertzepzio-mailan gizabanakoa munduarekin nola erlazionatzen den: egoerak nola interpretatzen dituen, nola prozesatzen dituen, erabakiak nola hartzen dituen, etab.
 - b) Gizabanakoaren funtzionamendu inkontzientea.
 - c) Gizabanakoaren jokabidean hauteman daitezkeen nortasunaren ezaugarri nagusiak.
 - d) Gizabanakoaren jokabidea eta horren ondorioak.
- 78.- Zein da lipotimiak edo sinkopeak dituzten pazienteentzako aukerako jarrera?**
- a) Morestin.
 - b) Roser.
 - c) Trendelemburg.
 - d) Fowler.
- 79.- Laguntzen ez duen pertsona bat ohetik aulkira segurtasunez aldatzeari dagokionez, aukera hauetatik zein da ZUZENA?**
- a) Nahikoa da erizaintzako laguntzaile bat.
 - b) Gutxienez erizaintzako hiru laguntzaile behar dira.
 - c) Erizaintzako bi laguntzaile behar dira.
 - d) Berdin dio zenbat erizaintzako laguntzailek parte hartzen duten.
- 80.- Non amaitzen da, birika-benen bidez, birika-zirkulazioa?**
- a) Ezkerreko aurikulan.
 - b) Eskuineko birikan.
 - c) Ezkerreko birikan.
 - d) Eskuineko aurikulan.
- 81.- Zer izen du eskuineko zulo aurikulobentrikularra ixten duen balbulak?**
- a) Sigmoidea.
 - b) Mitrala.
 - c) Semilunarra.



d) Trikuspidea.

82.- Zertarako erabiltzen da sudurreko kanula?

- a) Oxigenoa emateko bi sudur-zuloetatik.
- b) Oxigenoa emateko ahotik eta sudurretik.
- c) Oxigenoa emateko sudur-zulo batetik.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

83.- Nola prebeni daitezke beheko gorputz-adarretako barizak?

- a) Sedentarismoa alde batera utzita, eta ariketa eginda erregularitasunez.
- b) Ordu asko zutik ez egonda.
- c) Gehiegizko pisua eta tabakoa alde batera utzita.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

84.- Dieta idortzaileari dagokionez, baieztapen hauetatik zein da egia?

- a) Proteinen ehunekoa handitzen ari da.
- b) Zuntz askoko elikagaiak gutxitu edo kendu egiten dira.
- c) Digeritzeko errazak diren elikagaiak ditu, eta gluzido gutxikoa da.
- d) Gatza guztiz edo neurri batean kentzen da.

85.- Dieta absolutuari dagokionez, baieztapen hauetatik zein da EGIA?

- a) Proteinen ehunekoa jaitsi egiten da.
- b) Zuntz askoko elikagaiak sartzen dira.
- c) Ez da ezein elikagairik ez likidorik hartu behar.
- d) Kaloria gutxikoa da.

86.- Elementu hauetatik zein EZ da nefrona baten atala?

- a) Henleren lakioa.
- b) Bowmanen kapsula.
- c) Glitzurrunetako glomerulua.
- d) Giltzurrunetako muina.

87.- Zunda hauetatik zein EZ da erabiltzen gernua drainatzeko?

- a) Foley.
- b) Levin.
- c) Robinson.
- d) Pezzer.



- 88.- Gernuaren osagai hauetatik zein dira osagai anormalak?**
- a) Solutu inorganikoak.
 - b) Solutu organikoak.
 - c) Pigmentuak.
 - d) Proteinak.
- 89.- Kontziente dagoen heldu bati eztarriko trabamendua gertatuz gero, hauetatik zein maniobra da baliozkoa?**
- a) Bekokia-kokotsa.
 - b) Heimlich.
 - c) Wallace.
 - d) Barailako trakzioa.
- 90.- Pertsona heldu batean, bihotz-masajea, zenbat sakatu behar da bularrezurra?**
- a) 2cm.
 - b) 3cm.
 - c) 7cm.
 - d) 5cm.
- 91.- Non ezarri behar ditugu kanpoko desfibriladore erdiautomatiko bateko palak-elektrodoak heldu batengan?**
- a) Bat, eskuineko klavikula edo lepauztaiaren azpian, eta bestea, besapetik 10 cm behera.
 - b) Gizonei, titien gainean, eta emakumeei, titien alboetan.
 - c) Bat bizkarrean, eta bestea paparrean.
 - d) Bat sorbalda batean, eta bestea beste sorbaldan.
- 92.- BBB-a egiteko orduan, erreanimatzaileak nola jokatu beharko luke, bakarrik badago, eta ikusten badu pazientearen konortetik gabe dagoela, ez duela arnasarik hartzen eta pultsurik ez duela?**
- a) Ukabil-perkusioa, eta, ez badu erantzuten, bihotz-masajea: 80 sakada toraziko minutuko.
 - b) Arnasbidea ireki ondoren, bentilazioa (12 arnasaldi/minutu), eta 100 sakaldi toraziko minutuko. Laguntza eskatu.
 - c) Bihotz-masajea hasi: 30 sakaldi jarraian eta bi bentilazio, eta sakaldiak eta bentilazioak txandakatu: 30/2-ko erritmoan eta 100/min-ko maiztasunez.
 - d) Ukabil-perkusioa eta bentilazioa.



- 93.- Pertsona zaharraren aparatu eta sistemei dagokienez, hauetatik zein dira konpentsazio-estrategiak?**
- a) Urtero immunizatzea gripearean kontra.
 - b) Harreman eta jarduera sexualak saihestea.
 - c) Kaltzioa hartzea esnekien bidez.
 - d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.
- 94.- Zenbatekoa da pertsona heldu baten 24 orduko diuresia?**
- a) 1500ml.
 - b) 2000ml.
 - c) 900ml.
 - d) Erantzun bat ere ez da zuzena.
- 95.- Elikagai natural hauetatik, zeinek du B12 bitamina kantitate handiena?**
- a) Zerealek.
 - b) Fruitu lehorrek.
 - c) Animalia-jatorriko elikagaiek.
 - d) Frutek eta barazkiek.
- 96.- Laguntza teknikoarekin ibiltzean:**
- a) Hiru puntuko ibileran, lehenik bi makuluak eta hanka sendoena aurreratu behar dira.
 - b) Bi aldiko ibilerak ez du uzten gorputz-adar lesionatua inola ere deskargatzea.
 - c) Hiru aldiko ibilera, pazienteak pisua hanka baten gainean erabat eta bestearen gainean partzialki jasan dezakenean erabiltzen da.
 - d) Oszilazio ibilera gorputzeko pisua besoetan jasan ezin denean baina hanka batean indarra dagoenean erabiltzen da.
- 97.- Zein da ZUZENA?**
- a) Hipoxemia da oxigeno-presio arteriala gutxitzea eta odol arterialeko hemoglobina-asetasuna % 100etik beherakoa izatea, pulsioximetria bidez neurtuta.
 - b) Oxigenoterapiarekin, aire atmosferikoko oxigeno kantitate txikiagoak ematen dira.
 - c) Oxigenoterapia indikatuta dago arnasteko zailtasunak eragiten dituzten gaixotasun guztietan, sintomak disnea, ortopnea, zianosia eta espektorazioa badira, arnas gutxiegitasunaren adierazle izan baitaitezke.
 - d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.



- 98.- Oxigenoa emateko gailuei dagokienez, zein EZ da ZUZENA?**
- a) Pazienteak arnasa bere kabuz har dezakeenean erabiltzen diren gailuak dira.
 - b) Sudurreko betaurrekoak eta sudurreko zunda % 40tik beherako oxigeno- kontzentrazioak emateko erabiltzen dira.
 - c) Traqueostomiadun pazienteentzat maskara bereziak daude estomara egokitzen direnak.
 - d) Maskararekin, pazienteari % 5-80 arteko oxigeno-kontzentrazioak eman dakizkioke.
- 99.- Nefronan sodio-birxurgapena eta potasio-iraizpena erregulatzen ditu. Zein hormona da?**
- a) Hormona antidiuretikoak.
 - b) Aldosterona.
 - c) Somatotrofina.
 - d) Kortisola.
- 100.- Azido-base orekari dagokionez, zein da erantzun OKERRA?**
- a) Pertsona osasuntsu baten odoleko pH-a 7,10-7,25 artekoa da.
 - b) Arnas aparatuek pH-aren kontrolean esku hartzen du, CO₂ ezabatzeke duen gaitasunari esker.
 - c) Giltzurrunak baseak birxurgatzea eta ezabatzea erregulatzen du.
 - d) Sistema indargetzaileek, tanpoi ere deituek, pH-aren aldaketa kontrolatzen dute.
- 101.- Nutrizio enterala ematean, zerk adieraz dezakete goragaleak eta gorakoek?**
- a) Perfusio-abiadura handiegia da.
 - b) Azidotasun gastrikoa.
 - c) Mantenugaien urritasuna.
 - d) Guztiak dira zuzenak.
- 102.- Bularreko haur batean, zenbat erreskateko aireztatze egin behar dira oharkabeko asfixian?**
- a) 5 erreskateko aireztapen.
 - b) 15 erreskateko aireztapen.
 - c) 5 erreskateko konpresio.
 - d) Ez da inoiz aireztapenik egiten, oka egiteko arriskuagatik.



103.- Zein da erantzun ZUZENA?

- a) Sinkopea burmuineko odol-ekarpena bortizki gutxitzearen ondorioz gertatzen den kontzientzia-galera da.
- b) Lipotimiaren kasuan, ez da komeni biktimaren burua albo batera jartzea.
- c) Sinkope kasuetan, ez da komeni pazienteak antishock jarreran jartzea.
- d) Sinkopea beheko gorputz-adarretan odola pilatzeagatik gertatzen da.

104.- Hauetako zein EZ da erditze aurreko zainketetan egin beharreko prozedura bat?

- a) Baimen informatuaren orria jasotzen dela ziurtatzea.
- b) Pertsonari lagun egitea.
- c) Amaren eta fetuaren monitorizazio biofisikoan laguntzea.
- d) K bitamina bidezko profilaxia aplikatzea.

105.- Erdiberriaroaren berezko aldaketei dagokienez, EGIA da:

- a) Angiotentsinak esne jarioa eragiten du.
- b) Erditu osteko minak erditzetik 40 egunera agertu ohi dira.
- c) Lokioak umetoki-drainatzea dira, eta hasieran odolez osatuta daude.
- d) Perineoa ez da zaindu behar, urradurak edo episiotomia egon arren.

106.- Zein da zahartzearen aldaketa funtzional bat?

- a) Arterien elastikotasuna handitzea.
- b) Eztularen efikazia handitzea.
- c) Egariaren erantzun gutxitua.
- d) Jariaketa gastrikoa handitzea.

107.- Gorputz arrotzek arnasbidea oztopatzen badute helduetan eta urtebetetik gorako haurretan, nola jokatu behar da?

- a) Biktimak arnasa hartzen badu eta hitz egin badezake, 5 kolpe lehor eman behar zaizkio omoplatoen artean.
- b) Biktimak arnasa hartzen badu eta hitz egin badezake, eztula egiteko eskatu behar zaio.
- c) Biktimak ezin badu hitz egin, baina konortea galdu ez badu, 15 kolpe lehor eman behar zaizkio omoplatoen artean.
- d) Biktimak ezin badu hitz egin, baina konortea galdu ez badu, Heimlichen maniobra egin behar zaio ahoz gorako etzaneran jarrita.



108.- Nola deitzen zaio pixa egiteko etengabeko nahiari?

- a) Disuria.
- b) Piuria.
- c) Maskuriko tenesmoa.
- d) Oliguria.

109.- Bularreko anginaren ezaugarri orokorretako bat da:

- a) Miokardioaren nekrosiaren ondorioz gertatzen da, erabateko odol-ekarpen faltagatik.
- b) Toraxeko mina eragiten du, zapaltzailea edo konstriktiboa, bularrezurraren atzean, irradiatu daitekeena sorbaldetan, besoetan, masailezurrean, lepoan eta epigastrioan. Atsedenaekin arintzen da.
- c) Etengabeko bularraldeko mina eragiten du, irradiatu daitekeena besoetan, sorbaldan, lepoan, hortzetan, masailezurrean eta bizkarrean. Ez da arintzen atsedenaekin.
- d) Aurreko erantzunenetako bat ere ez da zuzena.

110.- Zein EZ da nutrizio enteralaren konplikazio bat?

- a) Sudurreko lesioak.
- b) Bronkoaspirazioa.
- c) Beherakoa.
- d) Tronbosi benoso sakona.

111.- D bitaminaren edo kaltziferolaren defizita zerekin lotzen da?

- a) Helduen osteomalaziarekin.
- b) Umeen errakitismoarekin
- c) a) eta b) zuzenak dira.
- d) Aurreko erantzunenetako bakar bat ere ez da zuzena.

112.- Larruazalaren zein egituratan daude odol-hodiak?

- a) Geruza korneoan.
- b) Dermisean.
- c) Geruza basal germinatiboan.
- d) Epidermisean.

113.- Funtzio hauetatik zein EZ dagokio sistema muskuloeskeletikoari?

- a) Mugimendua.
- b) Erregulazio termikoa.
- c) Hematopoiesia.
- d) Gordailua.

114.- Heldu batengan, zein da arnas maiztasun normala?

- a) 12-18 arnasaldi minutuko.
- b) 20-40 arnasaldi minutuko.
- c) 60-80 arnasaldi minutuko.
- d) 7-9 arnasaldi minutuko.

115.- Zerk du eragina paziente baten tentsio arterialean?

- a) Erresistentzia baskularrak eta katabolismoak.
- b) Gastu kardiakoak eta erresistentzia periferikoak.
- c) Odol-biskositateak eta odol-zelulen guztizko zifrak.
- d) Gastu kardiakoak eta metabolismoak.

116.- Zer izen du farmakoaren eragin terapeutikoa duen substantziak?

- a) Koadjubante.
- b) Eszipiente.
- c) Printzipio aktibo.
- d) Eragile nagusi.

117.- Nola eman behar dira kolirioak?

- a) Konjuntibako zakuaren kanpoaldeko ertzean.
- b) Konjuntibako zakuaren barrualdeko ertzean.
- c) Konjuntibako zakuan zehar.
- d) Betazaletan zehar.

118.- Organo hauetatik zein EZ dago digestio-aparatuko artean?

- a) Ahoa.
- b) Esofagoa edo hestegorria.
- c) Laringea.
- d) Faringea.



119.- Zer izen du ostomietako zulo artifizialak?

- a) Zulo ostomiko.
- b) Kolostomia.
- c) Estoma.
- d) Zulo gastriko.

120.- Noiz erabiliko dugu Sengstaken-Blakemore zunda?

- a) Erretentzio-enema bat jartzeko.
- b) Elikadura enterala emateko.
- c) Haizeak kanporatzeko.
- d) Hestegorriko barizeak edo barize gastrikoak odoletan baldin badaude.

121.- Hauetatik zein EZ dago agoniaren seinaleen artean?

- a) Zurbiltasuna eta izerdi itsaskorra.
- b) Arnasketa motela eta agonia-estertoreak.
- c) Sentikortasunaren galera.
- d) Biot arnasketa.

122.- Hauetatik zein da heriotzaren seinale berantiar bat?

- a) Algor mortisa.
- b) Ustelketa.
- c) Livor mortisa.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

123.- Amagandiko edoskitzean, hauetatik zein arau hartu behar da kontuan?

- a) Amaitu ondoren, haurrari korrokada botatzen lagundu.
- b) Haurrak eskatu besteko edoskitzea bultzatu.
- c) Haurraren ahoa areolaren inguruan jartzen lagundu.
- d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

124.- Edoskitze artifizialean, biberoiak prestatzeko orduan, hauetatik zein EZ da gomendio egokia?

- a) Zenbait ordu lehenago prestatuta utzi.
- b) Hautsa dosifikatzailearekin neurtu, eta arrasean bete.
- c) Ur irakina eta epeltzen utzia erabili.
- d) Etxe komertzialaren jarraibideak bete.



- 125.- Operazio ondoko tarteko aldiari dagozkion erizaintzako interbentzio hauetatik zein EZ dago lotuta pazientearen arnas egoerarekin?**
- a) Aspirazioa, behar izanez gero.
 - b) Jarrera-aldaketak.
 - c) Enboliaren kontrako galtzerdiak.
 - d) Arnas maiztasuna erregulartasunez baloratzea.
- 126.- Forma farmazeutiko hauetatik zein ematen da bide topikotik?**
- a) Nebulizagailuak.
 - b) Farmako intraartikularrak.
 - c) Tabletak.
 - d) Tanta oftalmikoak.
- 127.- Hauetatik zein EZ da farmakoak emateko bide parenterala?**
- a) Larruazalpeko bidea.
 - b) Arteria barneko bidea.
 - c) Bide endotrakeala.
 - d) Muskulu barneko bidea.
- 128.- Birsorkuntza eragozten eta infekzio bakterianoa errazten dutelako ehun debitalizatuak erauzteari, nola deritzo?**
- a) Epitelizatzea.
 - b) Desbridatzea.
 - c) Bitalizatzea.
 - d) Desbitalizatzea.
- 129.- Zer zunda mota da Nutrisoft zunda?**
- a) Zunda nasogastrikoa.
 - b) Ondesteko zunda.
 - c) Gastrostomiako zunda.
 - d) Piloro atzeko zunda.
- 130.- Higiene eta garbiketa orokorra egitean, honako hauek hartu behar dira kontuan:**
- a) Uraren tenperatura 36-40 °C artean izan beharko da.
 - b) Ingurugiro tenperatura 21°C-tan mantendu behar da.
 - c) Pazientearen independentzia, autozaintza eta harekiko komunikazioa sustatuko ditugu.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.



- 131.- Pazientearen higiena ohean egiteari dagokionez, zein da erantzun OKERRA?**
- a) Lehortu gorputz-adarrak, eskuoihalarekin ukitu txikiak eginez, behetik gorantz, zainetako zirkulazioa estimulatzeko.
 - b) Lehenik burua garbitu behar da. Aurpegian, lehenik, begiak, esponja xaboiuarekin.
 - c) Eman hidratatzeko krema larruazalean, eta eman masajea, presio-ultzera bat sortzearen zeinurik ez badago.
 - d) Egiaztatu eskuetako eta oinetako azazkalen egoera.
- 132.- Hauetatik, zein da presio-ultzerak agerrarazten dituen kanpoko faktorea?**
- a) Alterazio immunologikoa.
 - b) Larruazalaren osotasuna.
 - c) Mugikortasun urria.
 - d) Hezetasuna.
- 133.- Alboko etzaneraren posizio anatomikoan, zein dira presio-ultzerak agertzeko arriskua duten eremuak?**
- a) Okzipuzioa, eskapulak, bizkarrezur dortsala, olekranona, sakroa, ipurmasailak eta orpoak.
 - b) Belarri-hegala, masailak, akromioa, olekranona, trokanter nagusia, kondiloak eta oinetako behatzak.
 - c) Okzipuzioa, masailak, belarri-hegala, eskapulak, saihetsak, maleoloak eta behatzak.
 - d) Belarri-hegala, omoplatoak, olekranona, sakroa, tuberositate iskiatikoa, belaunpea, orpoak eta metatartsianoak.
- 134.- Bizi-konstanteei dagokienez, zein da erantzun OKERRA?**
- a) Tinpanoko eta uzkiko tenperatura normalak besapeko tenperatura baino 0,5 °C altuagoak dira.
 - b) Bizitzaren etapa zein, hauek dira arnasketa-maiztasunak: jaio berritan, 80-100 arnasketa minutuko; bizitzako lehen urtean, 40-50 arnasketa minutuko; eta helduaroan, 10-14 arnasketa minutuko.
 - c) Heldu baten tentsio arterialaren balio normalak honako hauen artekoak dira: TAS 120- 140 mmHg eta TAD 60-90 mmHg.
 - d) Bihotz-maiztasunari dagokionez, minutuko 60 taupada baino gutxiago izateari bradikardia esaten zaio, eta 100dik gora izateari, takikardia.



135.- Zein da ahotik emandako farmako baten bilakaeraren ordena farmakozinetikoa?

- a) Askatzea, xurgatzea, banatzea, metabolizatzea eta iraitzea.
- b) Xurgatzea, askatzea, banatzea, metabolizatzea eta iraitzea.
- c) Metabolizatzea, xurgatzea, askatzea, banatzea eta iraitzea.
- d) Banatzea, iraitzea, askatzea, metabolizatzea eta xurgatzea.

136.- Jaioberriaren ezaugarri antropometrikoei dagokienez, zein da ZUZENA?

- a) Gure inguruneko jaioberrien batez besteko pisua 2.000-2.400 g artean da.
- b) Batez besteko luzera 40-47 cm da.
- c) Garezur-perimetroaren batez besteko balioak 37-40 cm dira.
- d) Parametro horien balioak aztertutako biztanleriaren hazkunde-kurben 10-90 pertzentilen barruan egon behar dira.

137.- Noiz egiten da Apgar-en balorazioa?

- a) Jaio eta minutura, 2 minutura, eta batzuetan 15 minutura.
- b) Jaio eta minutura, 3 minutura, eta batzuetan 8 minutura.
- c) Jaio eta minutura, 5 minutura, eta batzuetan 10 minutura.
- d) Jaio eta minutura, 10 minutura, eta batzuetan 15 minutura.

138.- Ostomia-poltsa aldatzeari dagokionez, zein EZ da zuzena?

- a) Poltsa zikina beti goitik behera kentzea.
- b) Eremua ondo lehortzea, presio-mugimenduekin.
- c) Poltsa garbia jartzean, doitu estomaren inguruan eta utzi 4-5 cm-ko tartea.
- d) Estoma urez eta xaboi neutroz garbituko da, mugimendu zirkularrekin.

139.- Nola deitzen zaio hezurra zati txikitan apurtzen den eta odoljariora eta giharretako lesioa eragin ditzakeen haustura motari?

- a) Irekia.
- b) Zurtoin berdekoa.
- c) Zati anitzekoa.
- d) Zeiharra.

140.- Luxazioei dagokienez, hauetako zein da OKERRA?

- a) Izotza jarriko da mina eta hantura txikitzeko.
- b) Artikulazioa immobilizatuko da.
- c) Erasandako gorputz-adarra dagokion posizio anatomikoan jartzen saiatuko gara.
- d) Ospitale batera bidaliko da.



141.- Hezur-hausturei dagokienez, hauetatik zein da OKERRA?

- a) Haustura patologikoan hezurra berez hausten da, indar arrotz baten eraginik gabe.
- b) Zurtoin berdeko hausturan, hezurra tolestu eta erabat hausten da.
- c) Conminuta hausturan hezurra zenbait zati txikitan hausten da.
- d) Haustura itxi batekin batera, lesio muskularra eta barne-odoljariora izango dira.

142.- Zer zeinu EZ da baloratzen Apgarren indizean?

- a) Bihotz-maiztasuna.
- b) Tentsio arteriala.
- c) Estimuluekiko erantzun erreflexua.
- d) Larruazalaren kolorea.

143.- Zer da sialorrea?

- a) Elikadura-boloa bularrezurraren atzean gelditu delako sentsazioa.
- b) Irenste mingarria.
- c) Eduki gastrikoaren errefluxuagatik bihotzerre-sentsazioa.
- d) Listu kantitate handia botatzea.

144.- Zein EZ da jaioberriaren ezaugarri orokor bat?

- a) Fontanela nagusia eta txikia.
- b) Erreflexu errotulianoa.
- c) Vernix kaseosoa.
- d) Epsteinen perlak.

145.- Glukokortikoideei buruz, adierazi zein den erantzun OKERRA:

- a) Gibeledu glukoneogenesisia eta gluzemia areagotzea.
- b) Bere funtzioetako bat koipeen etabolismoa da.
- c) Bere funtzioetako bat karbohidratoen etabolismoa da.
- d) Muin suprarrenalean sortzen dira.

146.- Zein EZ da adenohipofisiak sortutako hormona bat?

- a) Oxitozina.
- b) Tirotropina.
- c) Prolaktina.
- d) Kortikotropina.



147.- Adierazi zein den erantzun OKERRA hipersentikortasun motei dagokienez:

- a) 4 hipersentikortasun mota daude.
- b) Transfusioetako erreakzioak II hipersentikortasunarekin lotuta daude.
- c) Transplanteen errefusak IV hipersentikortasunarekin lotuta daude.
- d) Sentsibilizazio atopikoa V hipersentikortasunarekin lotuta dago.

148.- Etileno oxido bidez esterilizatzea:

- a) Material termoerresistenteekin erabiltzen da.
- b) Material termosentikorrekinekin erabiltzen da.
- c) Nekez sartzen da gomazko eta plastikozko materialetan.
- d) Ingurune segurua da, toxikotasunik gabea.

149.- Esterilizazio-prozesuan, Bowie-Dicken testa:

- a) Esterilizagailuko lurrun ase kuantifikatzeko balio du.
- b) Ez da prozesuaren adierazle bat.
- c) Astero egin behar da autoklabeak esterilizazioa abiarazi aurretik.
- d) Irakurketa balioztatu behar da kolore-aldaketa homogeneoa adierazlearen kontrolarekin.

150.- II. taldeko hondakinentzako edukiontziak:

- a) Hondakin traumatikoak badira, edukiontzi zurrun, iragazgaitz eta zulaketarekiko erresistenteetan biltzen dira.
- b) Autonomia-erkidegoek homologatutako koloretako poltsetan, betiere kanpoko identifikazioarekin.
- c) Ospitaleko SIGRE puntuan uzten dira.
- d) Denak dira okerrak.

151.- IV. KLASEKO hondakinen kanpo kanpoko kudeaketari buruz (garraioa, tratamendua eta ezabatzea), ZUZENA da:

- a) Hondakin kimikoen kudeaketak ez du araudi espezifikorik behar.
- b) Iraungitako sendagaiak farmazia-banatzailleek biltzen dituzte errausteko, SIGRE eta ENRESA erakundeen bidez.
- c) Hondakin zitostatikoak instalazio egokietara bidaltzen dira, errausketaren bidez ezabatzeko.
- d) Guztiak zuzenak dira.

152.- Zer manipulatzeko erabiltzen dira dosimetro pertsonalak?

- a) Hondakin kimikoak eta aerosolak.
- b) III. TALDEKO hondakin sanitarioak.
- c) Hondakin erradioaktiboak.
- d) Sendagai zitostatikoak.



153.- Gernuaren ezaugarriak:

- a) Kolore horikoa izan ohi da, zeharrargia eta maskuria sortzen da.
- b) Kolorea irentsitako elikagaien arabera alda daiteke.
- c) a) eta b) zuzenak dira.
- d) Gibelesko patologia izanez gero, gernuak kolore gorri nabarmena du.

154.- Diuresi-kontrola. 24 orduko gernu-bilketaren prozedura:

- a) Bilketa gosaldutik ondoren hasiko da, eta oheratu aurreko mikzioa eta hurrengo goizeko lehen gernua jaso behar dira.
- b) Eguneko lehen gernua eta oheratu aurreko azkena bota eta beste guztiak jaso behar dira.
- c) Jaikitzen denetik hurrengo egunera arteko gernu guztia jaso behar da, 24 orduz.
- d) Goizeko lehen gernua bota behar da, eta, ondoren, gernu guztia jaso behar da, hurrengo goizeko lehena barne.

155.- Zein da erizaintzako zaintza osagarrietako teknikariaren zeregina esterilizazio- zentral bateko prestakuntza- eta paketatze-eremuan?

- a) Beste unitate batzuetako material lehorra edo aurretratatamendua duena jasotzea.
- b) Material-paketeak esterilizatzeko prestatzea, baita kontrol kimikoak eta biologikoak prestatzea ere.
- c) Esterilizazio-aparatuak martxan jartzen eta ondoren kontrolatzen laguntzea.
- d) Ebakuntza-geletarako eta ospitalizazio-solairuetarako eskaerak prestatzea.

156.- Zer prozesu egiten dira eremu zikinean?

- a) Materiala berrikustea, hautatzea, paketatzea eta esterilizatzea.
- b) Materiala deskargatzea, sailkatzea, biltegitratzea eta banatzea.
- c) Materiala jasotzea, berrikustea, garbitzea, lehortzea, lubrifikatzea, sailkatzea eta egiaztatzea.
- d) Materiala biltzea, garbitzea eta disoluzio desinfektatzaileak dituzten ontzietan sartzea.

157.- Noiz egiten da desinfekzio konkomitantea isolamenduan?

- a) Isolamendu-indikazioa amaitzen denean.
- b) Pazientea ingresatuta dagoen bitartean.
- c) Pazientea ingresatu aurretik.
- d) Bat ere ez da zuzena.

158.- Karkaxa hematikoa edo hemoptisia:

- a) Odoltsua edo marroixka da.



- b) Hori berdexka da.
- c) Urre-kolore eta hori gorrixkaren artekoa da.
- d) Mukosoa, serosoa eta zurixka da.

159.- Bioflmaren inguruan. Hondakin baten substantzia kimikoa edo organikoa:

- a) Erraz deusezta daiteke garbiketa-agenteekin.
- b) Agente desinfektatzaileei pasatzen laguntzen die.
- c) Horren gainazalean mikroorganismoak bizi dira.
- d) Guztiak dira zuzenak.

160.- Material kirurgikoa garbitzeko prozesua:

- a) Aldez aurretik serum fisiologikoarekin garbitzen da.
- b) Detergenteek bakterio-karga murriztea zailtzen dute.
- c) Detergente entzimatiakoek substantzia koipetsuak disolbatzen dituzte.
- d) Detergente entzimatiakoak ez dira urberitu behar.

161.- Hauetako zein da maila baxuko desinfektatzaile bat?

- a) Ur oxigenatua.
- b) Etanola.
- c) Klorhexidina.
- d) Formaldehidoa.

162.- Iododun konposatuen DESABANTAILA bat:

- a) Birizidak, fungizidak eta bakterizidak dira.
- b) Xaboi-disoluzioan erabiltzen dira.
- c) Larruazalaren sentikortasuna eragin dezakete.
- d) Substantzia tentsoaktiboekin, gainazaleko tentsioa gutxitzen dute.

163.- Zeri EZ zaio aplikatzen isolamendu zorrotza?

- a) Erredura mugatuei.
- b) Zoster herpes barreiatuari.
- c) Barizelari.
- d) Ebola birusari.

164.- Zer prebentzio-neurri da kimioprofilaxia pertsona zaurgarrientzat?

- a) Immunizazio pasiboko bitarteko bat.
- b) Immunizazio aktiboko bitarteko bat.
- c) Farmakoak ematea.
- d) Isolamendu-prozedura bat.



165.- Kate epidemiologikoari dagokionez, zer erantzun da OKERRA?

- a) Hiru mailaz osatuta dago.
- b) Erreserborioa agente infekziosoaren habitat naturala eta ohikoa da.
- c) Gizakiak erreserborio gisa jardun dezake.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

166.- Gaixotasuna transmititzeko mekanismoei dagokienez, zer dira elikagaiak?

- a) Zeharkako transmisio-mekanismoa.
- b) Transmisio-mekanismo mistoa.
- c) Zuzeneko transmisio-mekanismoa.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

167.- Infekzio nosokomialen prebentzio eta kontrolerako neurri orokorren barruan, osasun-heziketako kanpainek honako hauetan eragiten dute:

- a) Infekzio-iturrian bakarrik.
- b) Transmisio-mekanismoan bakarrik.
- c) Infekzio-iturria eta ostalari sentikorra.
- d) Guztiak egiazkoak dira.

168.- Zoonosietako transmisioak:

- a) Ospitaleko pazienteen artekoak dira.
- b) Animalietatik gizakietara dira.
- c) Beti birusek eragindakoak dira.
- d) Gaixotasunetan gertatzen dira eragile kausalik gabe.

169.- Gaixotasun infekziosoaren barruan, “iceberg fenomeno” honako hau da:

- a) Infekzioa egon daiteke, itxurazko gaixotasun-formarik gabe.
- b) Gaixotasun infekziosoaren sintoma bereizgarriak bakarrik agertzen dira.
- c) Diagnostiko erraza izateagatik bereizten dira.
- d) Guztiak gezurra dira.

170.- Zerk ezaugarritzen du gaixotasun transmitigarrien aldi prodromikoa?

- a) Gaixotasunaren berezko sintomak eta zeinuak agertzeak.
- b) Agente eragilea ostalarian sartzen denetik gaixotasunaren lehen sintomak agertzen diren arteko denborak.
- c) Diagnostiko batera eraman dezaketen datu analitikoak, zeinuak eta sintomak lortzeko aukerak.
- d) Zeinu ez-espezifikokoak eta orokorrak agertzeak.



171.- Gaixotasun transmitigarrietan, balizko ostalarien gaineko prebentzio-neurriei dagokienez, zein da zuzena?

- a) Kimioprofilaxia da gaixotasuna ez agertzeko farmakoak ematea.
- b) Immunizazio aktiboa beste gizabanako immune batzuek sintetizatutako antigorputzak ematean lortzen da.
- c) Immunizazio pasiboa mekanismo naturalen bidez lortzen da, ostalariak bere erantzun immunitarioa sortzen duenean antigenoaren aurrean.
- d) Immunizazio pasiboa txertoen bidez eskuratzen da eta berehalako eragina du.

172.- Zein dago infekzio nosokomialak prebenitzeko neurrien eraginkortasun-mailaren II. kategoriaren barnean?

- a) Aireztapen mekanikoko eta oxigenoterapiako ekipoak zaintzea.
- b) Jario laminarreko sistemak.
- c) Isolate-prozedurak.
- d) Istripuz izandako ziztadetan jarduteko protokoloa.

173.- Zein araudian oinarritzen da hondakin sanitarioen sailkapena, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Institutu Nazionalaren arabera?

- a) NTP 372.
- b) NTP 571.
- c) NTP 810.
- d) NTP 11.

174.- Erabilera anitzeko instrumentuen mantentze-lanean, EZ da higaduraren kausa:

- a) Esterilizagailuaren lurrin-hondakinak.
- b) Eskuzko lubrifikazioa.
- c) Sendagaien hondakinak.
- d) Uraren kalitatea.

175.- Batik bat zerk eragiten du tentsopitzaduraren ondoriozko material kirurgikoaren korrosioa?

- a) Material herdoilduekin edo kobrea edo zilarra duten altzairu herdoilgaitzezko tresnekin kontaktua izateak.
- b) Materialaren gainesfortzuak.
- c) Kloruroekin eta gatzekin kontaktuan egoteak eragindako herdoilak.
- d) Lubrifikazio eskasak eragindako marruskadura.



- 176.- Detergente baten propietatea, gainazalen arteko ura hobeto kontaktatzeko eta garbitzea errazteko tentsio-surfiziala murrizten duena, hau da:**
- a) Disolbagarritasun ahalmena.
 - b) Garbitzeko ahalmena.
 - c) Hezetasun ahalmena.
 - d) Banatze ahalmena.
- 177.- Detergente entzimatiekoen ari bagara, zein EZ da egia?**
- a) Gantzak saponifikatzen dituzte.
 - b) Surfaktanteak dira.
 - c) pH azidokoak dira.
 - d) Entzimak dituzte.
- 178.- Alderantzizko isolamendua paziente hauetan aplikatzen da...**
- a) Biriketako tuberkulosia, elgorria edo errubeola duten pazienteekin.
 - b) Erredura zabalak edo agranulozitosisia duten pazienteekin.
 - c) Gastroenteritisa, kolera edo A hepatitisia duten pazienteekin.
 - d) Ebola, sarna edo kandidiasia duten pazienteekin.
- 179.- UNE-EN ISO 15883/2006 Europako araudiaren arabera, tresna kirurgikoen garbiketaren eraginkortasuna baloratzeko, zer erabiltzen da?**
- a) Kabitazioa egiaztatzeke adierazle kimikoa.
 - b) TOSI testa.
 - c) Espora-test biologikoa.
 - d) DART proba.
- 180.- Ospitaleetan eta lehen mailako arretako zentroetan, eremuek arrisku-maila desberdina dute, kutsadura-maila zein den. Lehen mailako arretako unitate batean, non dago erdi-mailako arriskua?**
- a) Erizaintzako kontsultan.
 - b) Odontologiako kontsultan.
 - c) Medikuntza orokorreko kontsultan.
 - d) Kirurgia txikiko ebakuntza-gelan.
- 181.- Pazienteei zuzeneko arreta emateko ospitaleko artikuluen Spaulding sailkapena kontuan hartuta, hauetatik, zein dagokio material erdikritikoari?**
- a) Desinfekzio-maila ertaina izan behar da.
 - b) Larruazal kaltetuak edo mukosak ukitzen dituzten materialak dira.
 - c) Hortzetako tresneria eta endoskopio malguak.
 - d) Barrunbe antzuak ukitzen dituzte.



182.- Desinfektatzaileak eta antiseptikoak. Aukeratu erantzun ZUZENA:

- a) Desinfektatzaileak mikrobioen aurka diharduten toxikotasun gutxiko edo batere ez duten substantziak dira, giza larruazalean edo ehunetan erabiltzen direnak.
- b) Desinfektatzaileak mikrobioen aurka diharduten substantziak dira, eta bakterioen, onddoen eta birusen forma begetatibo guztiak suntsitzeko gai, hepatitisaren birusa barne.
- c) Antiseptikoak eta desinfektatzaileak erabiltzeko indikazioa haien kontzentrazioaren arabera da.
- d) Guztiak dira okerrak.

183.- Zer esango zenuke goi-mailako desinfektatzaileez?

- a) 2 ordutik gorako esposizioetan esporizidak izan daitezke.
- b) Osagai merkurikoak, alkoholikoak eta fenolikoak dituzten substantziak dira.
- c) Eraginkorrak dira Koch-en baziloa deuseztatzeko.
- d) Guztiak dira zuzenak.

184.- Zein eragozpen komun dute konposatu iodatuek eta alkoholek?

- a) Ekipo optikoen zementu optikoa kaltetu dezake.
- b) Erabilera kontraindikaturata dago bularreko haurretan.
- c) Argitik babestu behar da, inaktibatzea ekiditeko.
- d) Absortzio sistemikoa izan dezake.

185.- Esterilizazio-metodoak ebaluatzeko, mikroorganismoen heriotza-kurbak zehazten dira, bi parametroren bidez. Zein da “Z balioa”ren definizioa?

- a) Objektu jakin baten gaineko mikroorganismoen karga % 90ean eta denbora jakin batean murrizteko behar den tenperatura.
- b) Objektu jakin bateko mikroorganismoen % 90 suntsitzeko behar den denbora, tenperatura jakin batean.
- c) Mikrobio-karga guztia 121 °C-tan suntsitzeko behar den denbora.
- d) Mikrobio-kargaren % 100 60 minututan suntsitzeko behar den tenperatura.

186.- Esterilizazio-sistema hauetako zein ez da gasen metodo kimiko bat?

- a) Lurrun-autoklabea.
- b) Hidrogeno peroxidozko plasma.
- c) Formaldehidoa.
- d) Etileno oxidoa.

187.- Zein da etileno oxidoaren bidezko esterilizazio- metodoaren eragozpenetako bat?

- a) Ezin da erabili material termosentikorrek esterilizatzeko.



- b) Temperatura altuak behar dira, 75 °C-tik gorakoak.
- c) Hondar-toxikotasuna du eta harekiko esposizioa kontrolatu behar da.
- d) Ez da ziurtagarria.

188.- Lagin biologikoak lortzean, zer egin behar da analisiaren osteko fasean?

- a) Lortutako emaitzak biltzen dituen txostena egitea barne hartzen du.
- b) Mediku medikoaren analisi-txostenaren balorazioa barne hartzen du.
- c) Laginak laborategira garraiatzea barne.
- d) Lagin biologikoa hartzea barne.

189.- Zer da piuria?

- a) Mikroorganismoak egotea gernuan.
- b) 5.000 leukozito/mm³-tik gora egotea.
- c) Milioi bat leukozito/mm³-tik gora egotea.
- d) Proteinak egotea, egunean 50 mg baino gehiago.

190.- 24 orduko gernu-lagina hartzean, zein da prozedura zuzena?

- a) Goizeko lehen gernua botatzea, eta, ondoren, hurrengo goizeko lehenera arteko gernu guztia jasotzea, hori barne.
- b) Goizeko lehen gernua jasotzea, eta, ondoren, hurrengo goizeko lehenera arteko gernu guztia jasotzea, hori barne.
- c) Goizeko lehen gernua botatzea, eta, ondoren, hurrengo goizeko lehenera arteko gernu guztia jasotzea, hori salbu.
- d) Gernua jasotzen hastea adierazitako eguneko 20:00etan, biharamuneko goizeko 8ak arte.

191.- Oxiuroak aztertzekeo laginak hartzea:

- a) Torunda esteril batekin egin behar da.
- b) Lagina ondoz ondokoak ez diren hiru egunetan jasoko da.
- c) Eguneko edozein unetan jaso daiteke, ingurua garbitu ondoren.
- d) Lagina hartzeko erabilitako materialetako bat porta da.

192.- Laginak kontserbatzea eta garraiatzea:

- a) Karkaxak giro-tenperaturan kontserbatu behar dira.
- b) Elementu formadunik gabeko plasma eta seruma 18 °C-ko tenperaturan kontserbatu behar dira.
- c) Likido zefalorrakideoaren laginak 0 °C eta 4 °C arteko tenperaturan mantendu behar dira, ezin badira berehala aztertu.
- d) Guztiak dira okerrak.



193.- Nahi ez diren sendagaiak, zitostatikoak izan ezik, ospitalean gaika biltzeko, nola egin behar da bilketa?

- a) SIGRE puntua izeneko edukiontzi espezifikoa.
- b) III. motako hondakinentzako edukiontzietan.
- c) "Iraungitako sendagai" gisa identifikatutako edukiontzi espezifikoa.
- d) Konposizioaren eta/edo aurkezpenaren arabera, hainbat ontzitan botako dira, kudeatzeko.

194.- Esterilizazio-zentralean:

- a) Ereku zikina jasotako materiala berrikusteko, garbitzeko, lehortzeko, lubrifikatzeke, sailkatzeke, egiaztatzeke eta paketatzeke erabiltzen da.
- b) Ereku garbiak bi eremu ditu: gune garbia eta gune aseptikoa.
- c) Biltegitatze-eremuan, materiala horizontalean jarriko da sareta itxien apaletan.
- d) Esterilizazio-zentralaren diseinu arkitektonikoak norabide anitzeko zirkuitua ahalbidetzen du, eta, horri esker, eremu guztietara sar daiteke.

195.- Bizitza baliagarria: zein EZ da egia?

- a) Esterilizazio zentralerako kalitate-programen barruko balidazio-prozesuaren parte da.
- b) Materiala esterilizatzen denetik erabiltzen den arte irauten du.
- c) Esterilizatutako produktuaren bizitza baliagarri ere esaten zaio.
- d) Guztiak dira zuzenak.

196.- Zein da gelak eta espazioa garbitzeko oinarriko arauetako bat?

- a) Paziente immunodeprimituen objektuak azkena garbituko dira.
- b) Paziente infekziosoen edo isolamenduan daudenen gelak aurrena garbituko dira.
- c) Garbiketa-orga geletan sartuko da, korridoreetako igarora ez eragozteke.
- d) Guztiak dira okerrak.

197.- Erradioaktibitateari buruzko nazioarteko sinboloetan, zer esan nahi du kolore gorrikoak?

- a) Kanpoko erradiazio-arriskua.
- b) Zaintzapeko eremua.
- c) Sarrera debekatua.
- d) Kutsatzeko arriskua.

198.- Baldintza atmosferikoek eragina dute pazientearen egoeran; beraz:

- a) Hezetasun-maila handitzeak arnas-sistemari eragiten dioten mikroorganismoak barreiatzen laguntzen du.



- b) Hezetasun-maila jaisteak patologia kardiakoak eta zirkulazio-sistemakoak larriagotzen ditu.
- c) Hezetasun-maila optimoaren balioak % 40tik % 60ra bitartekoak dira, eta higrometroen bidez neurtzen dira.
- d) Ospitaleko hozte-sistemak ez dira arriskutsuak pazientearen osasunerako.

199.- Aukeratu erantzun ZUZENA:

- a) Garbiketa desinfekzio-teknika bat da.
- b) Antisepsia germen patogenorik ez egotea da.
- c) Garbiketa bitarteko mekaniko eta fisikoen bidez egingo da.
- d) Garbiketak biofilmeak ezabatzen ditu.

200.- Doyen pintza zer motatako materiala da?:

- a) Eremukoa.
- b) Hemostaziakoa.
- c) Esposiziokoa.
- d) Atzematekoa.